

CONCURSO

# DURANGOTIK HEGOALDERA

lehiaketa



EKAINAK 17  
DE JUNIO

izena emateko epea  
plazo de inscripción

ZER EGIN DEZAKEGU DURANGO OSASUNTSUAGO BATEN ALDE?  
¿QUÉ PODEMOS HACER POR UN MUNDO MÁS SANO?

**Etorri gurekin Guatemala!  
¡Gana un viaje a Guatemala!**



informazioa eta oinarriak  
información y bases

medicusmundi Bizkaia Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea (GGKE) da eta 1966an sortu zen Bilbon mundu osasuntsu baten alde nazioarteko lankidetzan aritzeko. Irabazi asmorik gabeko elkarte da, plurala eta partehartzailea. Gure jardunbidea giza eskubideen eta pertsonaren duintasunaren errespetuan oinarritzen da. Gure misioa edo egitekoa gizartean aldaketak sortzen laguntzea da: pobrezia desagertzeko eta osasuna pertsona guztien eskubidea izan dadin, elkartasunean eta herritarren konpromisoan oinarritutako kultura sustatuz.



medicusmundi Bizkaiak 10 urte darama **Durangoko Udalarekin** elkarlanean. Helburu nagusia emakumeek pairatzen dituzten giza eskubideen urraketak salatzeko eta emakumeen kontrako indarkeria errotik ezabatzeko prebentzio programak babestea da. Hamar urteotan zehar, Guatemalan, Kongoko Errepublika Demokratikoan (KED) eta Durangon sustatu ditugu proiektuak. Azkenak, “Politikoki antolatutako emakume maiek Guatemalan indarkeria obstetrikoa osasun publikoko arazoa dela aldarrikatzen dute”, “Estigma eta tabua hautsiz: Osasun menstrual, giza eskubide kontua Hego Kivun (KED)” eta, Durangon, “[Guatemalako hamaika aurpegi](#)” erakusketa Landakon, “[Semillas de Kivu](#)” eta “[Nataxik \(memoria\)](#)” filmak Zugazan, eta indarkeria gineko-obstetrikoren inguruko solasaldia eta osasun menstrualaren inguruko tailerra Andragunean.



medicusmundi Bizkaiak eta Durangoko Udalak hirugarren aldiz antolatu dute **Durangotik Hegoaldera** lehiaketa, Durangoko herritarrek 1) munduko beste leku batzuetako errealitateak (Guatemala edo Kongoko Errepublika Demokratikoa, esaterako), mundu mailako desberdintasunen arrazoiak, eta bertako erakundeek errealitate horiek eraldatzeko egiten duten lana (bertatik bertara nazioarteko lankidetzaren proiektuetarako diru publikoa zertan inbertitzen den ikustea barne) ezagutzeko eta herritarrak 2) osasunerako eskubidearen alde eta indarkeria matxisten aurka aktibatze, elkartasuna defendatzeko (nazioarteko elkartasuna barne) eta osasuna eta gizartea hobetzeko proposamenak egitera animatzeko.

Lehiaketaren hirugarren edizio honetan ere, gazteak animatu nahi ditugu nazioarteko lankidetzan eta gizartea eraldatzeko hezkuntzan interesa izatera eta hauetan parte hartzera; baina, berrikuntza gisa, adin nagusiko pertsona guztiek parte har dezakete lehiaketan.

Aurkezpen bideoa [Durangotik Hegoaldera](#)

## DURANGOTIK HEGOALDERA 2026 LEHIAKETERN OINARRIAK

- Lehiaketan kolektiboki hartu behar da parte. **Talde bakoitzak hiru kide izan beharko ditu** eta taldeari -lehiaketarako erabilgarria izango den- izen bat jarri beharko dio.
- Lehiaketan **izen ematea** dohainik da, 2026ko **ekainaren 17a** da izena emateko azken eguna eta esteka honen bitartez egingo da: <https://erabili.liberaforms.org/durangotik-hegoaldera-iii>
- Lehiaketan 18 urtetik gorakoek har dezakete parte.
- Hiru taldekideetatik bi gutxienez Durangokoak izan behar dira (Durangon jaio, bizi edo lan egin).
- Lehiaketak **proba puntuagarri bat** du.
- Proba hori ekainaren 18a baino lehen aurkeztu behar da.
- Informazio guztia [medicusmundi Bizkaiaren webgunean](#) eskura daiteke.

### Saria

Talde irabazlearentzako saria: Guatemalara bidaia (6 eta 10 egun bitartekoa), bertako errealitatea eta medicusmundi Bizkaiak Durangoko Udalaren laguntzarekin garatzen dituen lankidetzak proiektuak gertutik ezagutzeko. Bidaia bakarra izango da, medicusmundiko teknikariek batera egingo dena, eta 2026ko abuztuan egitea aurreikusten da.

medicusmundi Bizkaiak Guatemalan batez ere honako elkarte eta erakundeekin egiten du lan: [MOLOJ](#) (Emakume Maien Elkarte Politikoa; indarkeria obstetrikoa ikertu eta salatu dug haiekin), [ASECSA](#) (Osasun Zerbitzu Komunitarioen Elkarte, 48 urte; osasun erakunde komunitarioen sarea), [La Cuerda](#) (komunikabide feminista eta, aldi berean, artikulazioa, pentsamendua eta prestakuntza politikoa bultzatzen dituen elkarte feminista), [La Alianza](#) (trataren eta sexu indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei eta migratzaile diren, amen diren edota arrisku sozial handian dauden haur eta nerabeei arreta ematen dien erakundea), [CPDL](#) (Tokiko Boterea eta Garapena Kolektiboa; premia handiena duten herritarrei benetako ahalduntzea lortzen laguntzeko sortu zen; genero indarkeriari aurre egitea funtsezko ardatza dute), Hijas de San José Obrero eta [MSPAS](#) (Osasun Publikoaren eta Gizarte Laguntzaren Ministerioa). Bidaian zehar, besteak beste, erakunde hauen lana ezagutu ahalko dute.

**Proba:**

Durangon datozen hilabete edo urteetan egin daitezkeen jardueren proposamen bat egin behar da. Jarduera horiek medicusmundi Bizkaiaren laguntza jasoko dute.

Talde bakoitzak dokumentu labur bat aurkeztu beharko du proposamenarekin. Hau da jardueretarako abiapuntua edo ideiak garatzeko galdera eragilea: Zer egin dezakegu Durangon osasunaren eta berdintasunaren alde? Txostenean zera azaldu beharko da labur: proposatutako jarduerak zer helburu duten, zergatik diren beharrezkoak edo interesgarriak, jarduera horiek zehazki zeintzuk izango liratekeen, nork parte hartuko duen, nori zuzenduta dauden, zer baliabide behar diren...

medicusmundirentzat interesgarriak dira honako gai hauek, besteak beste: indarkeria gineko-obstetrikoa, osasun menstruala, sexu eta ugalketa osasuna, feminismoak, ekitaterik eza gainditzea, osasunaren gizarte determinatzaileak, osasun publikorako eta unibertsalerako eskubidea, genero berdintasuna, sexu eta genero aniztasuna, osasun mentala, osasun komunitarioa, trata, haurren babesa, indarkeria matxisten arreta eta haien aurkako borroka, ura eta saneamendua, ingurumena, klima aldaketa, agroekologia, kooperatibak, kulturartekotasuna, bakea eraikitzea, eragin publikoa, aktibismoak, giza eskubideak edo nazioarteko elkartasuna. Proposatzen diren jarduerak gai hauei edo beste batzuei buruzkoak izan daitezke, baina medicusmundiren egitekoaren edo misioarekin lotuta egon beharko dira.

Jarduera motei dagokienez, urte hauetan medicusmundik Durangon argazki erakusketak, zine emanaldiak, pintura, bertso saioak, rap tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak eskoletan, ikus entzunezkoen sorkuntza eta abar egin ditu. Proposamenek ez dute zertan mota horretakoak izan: ikerketa, memoria lan, antzerki, hormirudi edo mural, parte hartze prozesu, kaleko ekintza, esku hartze artistiko, sormen proiektu, esku hartze sozial, boluntariora... aukera asko dago. Garrantzitsuena gazteentzat, emakumeentzat edo, oro har, Durangoko herritarrentzat egokiak, eraldatzaileak edo interesgarriak diren proposamenak izatea da.

Horregatik, positiboki baloratuko da Durangoko erakunde, elkarte, ikastetxe, osasun zentro, mugimendu, komunikabide, artista, hezitzaile, aditu, obra, leku, emakume, gazte eta bestelako eragile batzuek proposamenean duten inplikazioa edo partehartzea, jarduerari bideragarritasun, errotze eta inpaktu handiagoa emango liekeelako.

Durangoko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker, medicusmundi Bizkaiak badu proposamenak aurrera eramateko partida bat.

#### Txostenak ezaugarri hauek izan beharko ditu:

- Luzera: gehienez 6 orrialde (eranskinak kontuan hartu gabe)
- Parte hartzen duten taldeek aurkeztu beharreko [txostena](#)ren aurkibidea edo egitura jasoko dute; dokumentu berean ageri dira, halaber, epaimahaikideek kontuan hartuko dituzten balorazio irizpideak eta puntuazioak.
- Proposamenak euskaraz edota gazteleraz aurkeztu ahalko dira.
- Durangoko erakunde, elkarte edo eragileren batekin jardueraren bat egitea erabakiz gero, erakunde horren babesaren ematen duen agiria positiboki baloratuko da.
- Txostena [educa.bizkaia@medicumundi.es](mailto:educa.bizkaia@medicumundi.es) helbidera bidaliko da, beranduenez 2026ko ekainaren 17ko 23:59 denean, epaimahaikideek amaiera ekitaldia baino lehen jaso dezaten.

#### Zalantzak argitzeko:

**Ekainaren 4an**, 18:30etan, saio irekia egingo da Durangoko Andragunean, lehiaketari buruzko zalantzak argitzeko. Guatemalako egoerari eta medicumundi Bizkaiaren lan ildoari buruz ere aritzeko modua izango da.

Gainera, medicumundi Bizkaia beti egongo da medicumundi Bizkaiak egiten duen lanaren, bere helburuen eta lehiaketaren inguruko edozein azalpen emateko prest; aurrez aurre, telefonoz nahiz idatziz.

Harremanetarako: **688717051** [educa.bizkaia@medicumundi.es](mailto:educa.bizkaia@medicumundi.es) (Jon Mikel)

#### Gainerako taldeei proposamenak aurkeztea

Lehiaketaren amaiera ekitaldia **ekainaren 18an** egingo da, 18:00etan, Andragunean. Talde bakoitzak bere proposamena azalduko die gainerako taldeei eta epaimahaikideei. Bertan, partehartzaileek, medicumundi Bizkaiaren lantaldeak eta epaimahaiak elkar ezagutuko dute, eta gainerako taldeek egindako proposamenak ezagutu eta elikatu ahalko dituzte. Gainera, partehartzea aitortu eta eskertuko zaie pertsona guztiei, eta oroigarri txiki bat emango zaie.

#### **Proposamenen balorazioa**

Proposamenak honako alderdi hauek kontuan hartuta baloratuko dira:

Helburuak (15 puntu); Proposamenaren lotura medicumundi Bizkaiaren misioarekin (15 puntu); Gaia zergatik den egokia eta interesgarria Durangon (20 puntu); Irismena, eragina eta partehartzea (30 puntu); Jardueren bideragarritasuna, egingarria den (20 puntu)

Epaimahaiak ekainaren 24a baino lehen erabakiko du zein den proposamen irabazlea. Talde partehartzaile bakoitzak emaitzen berri jasoko du erabakia hartu bezain pronto. Gainera, medicumundi Bizkaiaren webgunean eta sare sozialetan jakinaraziko da zein izan den talde izan den irabazlea.

### Proposamenen balioa

Bidaiarekin saritutako proposamen bakarra egongo bada ere, medicusmundi interesgarriztat jotzen dituen proposamen eta jarduera guztiak aurrera eramaten saiatuko da, ahal duen neurrian.

### Eta bidaiaren ostean?

Talde irabazleak Durangoko herritarrei bidaiaren berri emateko konpromisoa hartu beharko du: bidaian zehar edukiak sortu, Durangon aurkezpenen bat egin, komunikabideei elkarrizketak eman... medicusmundi Bizkaiarekin batera erabakiko dute zer egin. Proposamena hautatua izan ondoren eta bidaia hasi aurretik adostuko da hori, eta talde irabazleak medicusmundi taldearen laguntza izango du egin beharrekoa gauzatzeko.

### **Kontuan hartu beharrekoak:**

- Saria eskuratzeko ezinbesteko baldintza da proba puntuagarria adierazitako epean aurkeztea.
- Proba ebaluatzeko, edukia, aurkezpena eta originaltasuna hartuko dira kontuan. Halaber, epaimahaiak proposamenak GGKEen Koordinakundearen [irudi eta mezuen kodea](#) betetzea, hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabiltzea, genero ikuspegia eta ingurumenarekiko errespetua izatea baloratuko du.
- Proba euskaraz, gazteleraz ala bi hizkuntzetan aurkez daiteke.
- Partehartzaileek onarpena ematen diote lehiaketa kudeatzeko behar diren datu pertsonalen tratamenduari.
- Lehiaketan ezingo dute parte hartu epaimahaia osatzen dutenek, kontratatuta dauden langileek eta medicusmundi Bizkaiako zuzendaritza elkarteko kideek, ezta horien zuzeneko senideek ere.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauen onarpena dakar.
- Erakundeak oinarrietan aurreikusi ez den edozein egoerari buruz erabakiak hartzeko ahalmena du.

Jakinarazten dizugu ezen, 2016ko apirilaren 27ko DBEOren araudian ezarritakoari jarraituz, MEDICUSMUNDI BIZKAIK jasotzen eta tratatzen dituela izaera pertsonaleko zure datuak horien konfidentzialtasuna bermatzen duten neurri tekniko nola antolakuntzazkoak hartuta, lehiaketa honen harira erakundearekin lotzen zaituen harremana kudeatzeko helburuarekin. Zuk onespina eta baimena ematen diozu tratamendu horri. Izaera pertsonaleko zure datuak gure arteko harremana kudeatzeko ezinbestekoa den denboran bakarrik gordeko ditugu. Datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, eramateko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatu ahalko dituzu MEDICUS MUNDI BIZKAIA erakundearengana zuzenduz helbide honetan: Begoñako Andramari 20, behea, 48006 Bilbo, BIZKAIA.